

Duela ehun urte euskal kulturaren berpizkunde-garaia indartu zen. Euskara, herri-hizkuntza izatetik, nazio-hizkuntza, hau da, Euskal Herri edo Euzkadi nazio berriaren kultur hizkuntza bihurtzeko ahalegina eta erronka gihartu zen. Gizarte berrian, industriagintzako aldakuntza iraultzailearen ondorioz, ogibide berriak, ohitura berriak eta komunikatzeko bide berriak sendotu ziren. Hezkuntzaren eraginez, alfabetatzea zabaldu zen premiazkoa zelako. Horrela, irakurtzeko gaitasuna eta ohitura gizarte berrian ohikoak egin ziren. Hirietan, egunkari ugari argitaratzen zen. Erdarak, hots, gaztelania Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean, kultur hizkuntza nagusiak bihurtu ziren komunikabide idatzietan, baina XIX. mende amaieran, belaunaldi berriko kulturaren alorreko pertsona batzuen ahalegina izan zen euskara ere kultur hizkuntza moderno bihurtzea, gizarte berriaren premietara egokitua. 1890eko hamarkadan R.M. Azkuek Bilbon euskara moderno eta hiritarraren alde ekinean ari zen


gramatika berria asmatuz, euskaldunen biltokia sortuz eta euskal aldizkari-mota berriak argitaratuz. Adibidez, *Euskalzale*.

1



Manu Ziarsolo, *Abeletxe* (1902-1987)





1890 hamarkadako aldizkariak Bilbon; *El Correo Vasco* jeltzaleen egunkaria eta *Euskalzale* (1897-1899), R.M. Azkuek sortu eta zuzendutako astekaria.



R. M. Azkue, 1864-1951.

EUZKADI EGUNKARIKO EUSKAL ATALA

Euzkadi egunkariak, Bilbon, euskal abertzaleen ekimenez 1913an sortu zenetik, lehen orrian euskarazko artikulua ohiko bihurtu zuen. Kirikiño idazlearen zeregina zen euskarazko artikulua idaztea: “Eldu da gure eguna” izenburua izan zuen lehen artikulua aldi berriaren hastapena iragarri zuen. “Egunekua” zuen euskarazko artikulua atalak izenburua. Euskara espazioa irabaziz joan zen, “Egunekua”-ren ostean “Euzko elez”, “Euzkel-atala” eta “Euzkadi guztiko izparrak” etorri ziren. Kirikiñoren eraginez eta zuzendaritzapean joan zen indartzen euskara egunkarian. Ondoren, 1928an, Orixek hartu zuen ardura, gero Lauxetak eta azken bost hilabeteetan, *Euzkadi* egunkaria debekatu arte, Manu Ziarsolo *Abeletxe*-k.

1923an, Bilboko beste egunkari batean ere, euskaraz idazten zen: *Aberri* izeneko egunkarian, hain zuzen. M. Ziarsolok bilduma osoa gorde zuen eta badirudi *Aberri* joerakoekin bat zetorrela.

Beraz, 1913tik aurrera euskara eguneroko komunikazio modernoan indarra hartzen hasi zen, sarritan,

euskaraz idatzitako gaiak bitxikeriak, erlijio-gaiak edo tokian tokiko albisteak izan arren. Orixe eta Lauaxetarekin literaturaren gai orokorretara zabaldu zen euskararen esparrua.



Euzkadi egunkariaren lehenengo alea (1913.02.01).



Euzkadi egunkariaren lehen zenbakiko lehen orrialdean Kirikiñoren artikulua argitaratu zen. Geroago Eguna egunkariko lehen orrialdean “Kirikiño” gomutan dugu” artikulua agertu zen.

Kultur giro horretan hezi zen Manu Ziarsolorengan euskarazko kazetaritzaren aldeko zaletasuna.

Euzkadi-ko euskal orria kazetari-belaunaldi berriarentzat eredu eta eskola izan zen. Beraz Kirikiñoren ikusmoldea Bilboko euskal kazetaritza berriaren abiapuntutzat hartu zen. Kazetari berri eta gazteek, lehen artikulua bertan agertu zituzten. Manu Ziarsoloren kazetaritza-eskola Euzkadi egunkariako euskal atala izan zen. Hara bere berbetan esana: “Erreka bateko zurrumbilloak bere inguru guztiak beraganduten dauzan lez beragandu nindun ‘Kirikiño’k amabi urteko mutikoa nintzanean. 1913’gn. urtea zan. Euskeldun nintzan arren, izkuntz-maitasuna lo egoan nere barrenean, ta ‘Kirikiño’k bere eguneroko euskal-yardun alayaren bitarez itxar-azi eustan. Bai pozik irakurten nebazala aren erri-esakerak!”

Bestalde, Donostian argitaratzen hasi ziren Euskal-Esnalea baina, batez ere indartsu, Argia astekaria: Gipuzkoan zehar zabalkunde handia lortu zuen eta eredugarri bihurtu zen. 1930eko hamarkadan, Donostiako El Día egunkariak ere Artzelus donostiarraren eskutik egunero euskarazko gaiak argitaratzen zituen. Beraz, beste kazetari euskaldun talde

4 baten gunea Donostia-Tolosa ardatzean sendotu zen.

Azkenik Ipar Euskal Herrian, *Eskualduna* aldizkariaren inguruan, kazetaritza-komunikazioaren hirugarren ereduak genuke. Integrismo politiko eta katolikotasunaren eusle, hizkera herrikoia eta bizia erabiltzen zuen. Hori dela eta, *Eguna* sortu zenean, ideologia aldetik eta euskara-moldeetan ere, beste muturrean aurkitzen zen.

Garaiko beste euskarazko aldizkarietan ere —*Zeruko Argia*, *Ekin*, *Jesus Biotzaren Deya...*—, idazle-belaunaldi berria trebatu zen Hego Euskal Herrian. Beraz, euskal prentsaren sarea indartzen ari zen.

Euzkadi egunkariaren tradizioan *Euzko* izeneko astekaria sortu zen Bilbon 1932an, M. Ziarsoloren ekimenez, besteak beste. Bilboko *Euzko* eta Donostiako *Argia*-ko tradizioek bat egin zuten *Eguna* egunkaria argitaratzeko unean. Bien ekimena nabarmena da *Eguna*-ren orrietan. Hala ere, *Euzkadi* egunkariko enpresaren produktua zenez gero, *Euzko* eta *Euzkadi*-ren eragina nabarmenagoa izan zen.



Donostiako *Euskal-Esnalea* eta *Argia* eta Iparraldeko *Eskualduna*.




Euzkadi egunkariko euskal atalean, euskal egunkariaren premiaz, eztabaida sortu zen 1929an. Lizardi idazle handiak eta Mendilautak (Txomin Arruti) egunkari berriaren beharraz idatzi zuten. 1930eko martxoaren 9an Lizardik Euskaltzaleen Biltzarrean euskal egunkari berriaren proiektua zehatz-mehatz agertu zuen: “Katolikoz gañera gure egunkaria euskozale sutsua izango litzake, au da, euskeraren alde ta euskaldunen eskubideen alde beti yokatuko lukena, naiz politika-alderdi gabekoa izan”.

Tamalez ekimenak ez zuen aurrerabiderik egin. Baina kezkak horretan zirauen.

1932an, II. Errepublikaren garaian, Euzko Alderdi Jeltzaleko Bizkaiko Buru Batzarrean Manu Ziarsolok hurrengo adierazi zuen: dirua izanez gero berehala argitaratuko zukeela euskaraz egunkaria. Gipuzkoan *Argia* zegoen baina Bizkaian antzekorik ere ez. Azkenean, egunkaririk ez baina euskarazko astekaria argitaratzen hasi ziren, *Euzko* izenekoa hain zuzen.



Jose María Agirre, Xabier Lizardi (1896-1933). *Euzkadi* egunkarian argitaratutako irudian ikusten den bezala.



Txomin Arruti, Mendilautak.

EUZKO: BIZKAIKO EUSKAL KAZETARIEN ESKOLA

Euzko astekariak 1932ko uztailaren 30ean argitaratu zuen Bilbon lehen zenbakia, Loiolako San Ignazioaren irudia eta guzti lehen orrialdean. *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren ereduari jarraituz, asteroko hau euskaraz idatzita zegoen eta kutsu politiko nabarmena zeukan, Euzko Alderdi Jeltzalearena, eta zehatzago *Aberri* edo *Jagi-Jagi* aldizkarien joeraren ingurukoa. Jose Ituarte, *Artibai* ondarrutarra eta Manu Ziarsolo ziren *Euzko*-ren zuzendaritza-lanetan sarturik zeudenak. Euskal abertzaletasunak eta erlijio-gaiek toki garrantzitsua zuten. Abertzaletasun euskaldunaren isla garbia eskaintzen zuen, hortaz, batez ere, aldizkari politikoa zen. Atzerriko berriek edo kirolek ere lekua zuten, hala ere, “Euzkadi errijetako izparrak” atala zen garrantzitsuenetarikoa hainbat idazlek euren herriko albisteak argitaratzeko bidea ematen zuelako. Kazetari eta idazle berriak trebatzeko eskola bihurtu zen atala. Gazteentzat euskaraz idazten hasteko aukera ezarri zuen eta abertzaletasun-pizkundearen mistikaren eusle bilakatu zen. Baserritar, arrantzale eta langileen arazoak ere aztergai izan ziren. Komikiaz horniturik ematen zen

azken orria. “Gastetxu” izeneko orria ere argitaratzen hasi zen.

Manu Ziarsolok lehen orrialdean “Astekua” izeneko atala astero idatzi zuen eta 1934an “Gazi-gazak” izenekoari ekin zion. Kazetari legez, *Euzko*-n esan genezake heldutasunera iritsi zela. Lauxeta eta Eusebio Erkiagaren artikulua ere ageri dira. A. Zubikaraik Ondarruko berriez idazten zuen. Beraz, euskal idazle-taldea kazetari bezala trebatzeko astekaria bihurtu zen. 96 zenbaki ezagutzen dira eta badirudi 1934ko ekainaren 2an ateratako 96. zenbakia izan zela azkena.



Euzko astekariaren lehenengo alea.



“Gastetxu” izeneko orrian komikia.



“Gazi-gazak” ataleko artikulua-bildumaren argitalpena.

1936an, *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren zuzendaria Lauaxeta zen. Guda bizi-bizian zegoenean, Eusko Jaurilaritza osaturik, Lauaxetaren eraginez, *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren arduraduna Manu Ziarsolo, *Abeletxe* zen. 1936ko abenduan euskarazko egunkariaren argitalpena erabaki zenean, Manu Ziarsolo izendatu zuten egunkari berriko buru eta bere agindupean jarri zen oinarrizko kazetari-taldea eratzea. Zuzendariorde edo erredakzio-taldeko buru Augustin Zubikarai izendatu zuten. Kazetari gazte ondarrutarrak “Guda-otsak” sailaren ardura eraman zuen *Euzkadi* egunkarian. Lan hori hartu baino lehenago *Euzko* astekarian ere aritu zen idazten.

1936an, gudaren ondorioz, egunkari guztiek orri-kopuruak murriztu behar izan zituzten. Horrela *Euzkadi* egunkariko euskal atala, egunkari berria bihurtzea erabaki zuten. Ordurako, Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa euskaraz argitaratzea lortu bazen, zergatik ez albistezko egunkaria.

Lauaxetaren itzala, besteak beste, beharrezkoa izan zen, baina Lizardiren kezkak eta gogoetak ere euskaltzaleen buruetan pil-pilean

zeuden. Giro horretan aspaldiko ametsa betetzeko aukera sortu zen. Esan eta egin. Esperientzia hartuta zegoen eta horrela ausardiaren egunean *Eguna* euskarazko lehen egunkaria bat-batean sortzea asmatu zen. Historian izandako lehen Eusko Jaurilaritzak ere ikur berriak behar zituen eta Euskal Unibertsitatea sortu zuen bezalaxe, euskarazko egunkariaren argitalpena garaian garaiko erronka zen.

Honela gogoratzen zuen Abeletxek: “etzituan egun gozoak eta errezak! (...) Gauza bi onak, orraitiaño: gaztetasuna eta lanerako —aberri maitearen alderako— gogo beroa. Goizaldeko irurak arte lan egin bear izaten genduan, geure eguneroko ori atarateko.”



Esteban Urkiaga, *Lauaxeta*. Guda-garaian propaganda-saileko buruen arteko bat izanik euskarazko egunkaria argitaratzeko bultzatzailea.



Eguna -ren lehenengo alea.

LEHEN ZENBAKIA

Eguna-ko lehen editorialak, urte batzuk lehenago *Euzkadi* egunkariko 1913ko lehen alearen tonu epiko eta berritzailea gogorarazten du: “Emen gara!! Pozez ganezka gatoz... Etxepareren ames berberetz kutsututa gatoz. Eta EGUNA biotz, begi eta gogoetan darabilgunok, idazle zararen kanta bero ta gartsuz didar dagigu: Euzkera jalgi adi kanpora! Euzkera jalgi adi plazara! Euzkera, abil mundu gustira, EGUNA´ren egoetan!”

Bestalde lehen orrian “‘Kirikiño’ gomutan dugu” artikuluxkak, Kirikiñoren marrazkiz horniturik,

gorazarre eta kazetarientzat abiapuntutzat erakusten zuen: “...il zala zortzi urte (...) berak beste euzkeraz idatzi daunik ezjala. Ezta berak beste euzkel-idazle sortu ebanik be.” Aurrerantzean ere, euskaldun kazetarien adibide eta gidaritzat hartua izango zen. Honetan zalantza barik, Manu Ziarsolo bera izan bide zen lokarri edo zubi-ekintza betetzen zuena, lehen aldiko euskal kazetari eta belaunaldi berriko kazetari gazteen artean. Horrela, igarobideko kazetari legez har genezake Manu Ziarsolo, kazetaritza-produktu berriaren bidez kazetaritza berria indartzeko gaitasuna erakutsi baitzuen 1930eko hamarkadan.



Eguna egunkariko atal ezberdinen atal-buruak.



Eguna-ren lehen zenbakian, jadanik, eskola edo joera bietako kazetariak ageri zaizkigu: *Euzko*-tik datozenak tradizio sabindarraren jarraitzaileak dira. Bestalde, Uzturre edo Mendigainen artikuluak, adibidez, gipuzkeraz daude idatzita. Beraz, lehen zenbakitik tradizio biren bilgunea zen *Eguna* eta oinarritzko kazetari-taldea Bizkaiko mendebalekoa zen, Gipuzkoako mugakoa.



VI. Aberri-eguna izan zela eta lehen orrialdean eman zuten berria.



EGUNA ENPRESA

Euzkadi egunkaritik sortu zen eta beraz Euzko Alderdi Jeltzalearena zen. Hasieran idazkaritza Correo kalean izan zuen *Euzkadi*-ren ondoan eta *Euzkadi*-ko irarkolan argitaratzen zen. Ondoren, Indatzu goikoan, Gran Via-n, eta gero, *La Gaceta del Norte*-rena izandako lantegian. 8.000-10.000 mila ale argitaratzen ziren. Gudari-taldeen artean banatzen zen, baina gudariarentzat gerrako egunkari soila baino gehiago izatera heldu zen.

DISKURTSU IDEOLOGIKOAREN ARDATZAK ETA EGITURA NARRATIBOA

Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspuntuak zabaldu zituen. Hona hemen ageri zituen ardatzak: antifaxismoa eta askatasun demokratikoen alde agertzea, euskal abertzaletasunaren aldekoa izatea, euskara abertzaletasunaren muintzat hartzea, kristautasuna eta katolikotasunaren defentsa egitea, Eusko Jaurlaritzaren alde jokatzeko eta gizarte-arazoez arduratzea —baserritarren, langileen eta arrantzaleen arazoez—.

Egitura narratiboari dagokionez, martxoaren 31 egun seinatua izan zen, orduan Molak hasi zuelako ofentsiba gogorra eta aurrerantzean gudak egunkariaren izenburuak eta kezkak erabat baldintzatu zituelako.

Berri laburrak agentzien bidez lortzen ziren, horiez gainera bestelako egunkarien laburpenak eta aldi berean kolaborazioak ere eskaintzen ziren; adibidez, Basarriren “Nere Bordatxotik” saila, “Xelataka” Andoni Arozenarena, literatur testuak, kaleko marmara, edo abertzaletasunaren doktrina. Bestalde, marrazkiak, karikaturak eta argazkien bidez garaiko ohiko diskurtsu periodistikoaren isla lortu zuten.

MANUEL ZIARSOLO GIRONELLA: ZUZENDARIA

Bilbon jaio zen 1902ko urtarrilaren 1ean. Izatez, aita Elorriokoa zen eta ama Bermeokoa. Euskara etxean jaso zuen. Ermuan hezi eta Abeletxe, bere izenordea, Ermuko baserri-etxetik hartu zuen. Txisperu-ofizioa (armagintzan) ikasi zuen. Gero Euskalduna ontzigintzan lan egin zuen. Bilbon Juventud Vasca elkartearen sartuta egon zen eta seguruenik *Aberri* egunkaria argitaratzen zutenen kidea izan zen. Taberna txikia zuen Bilbon Alameda San Mames kalean, baina bere biziko grinak euskara eta abertzaletasuna zituen. A. Zubikarai horrelaxe idatzi du: "Origaitik etxerako lanean baino apostolu lez alkar laguntzan geiago ibiltzen zala esango neuke". Horrela, *Euzko* astekarian lehenago eta 1936an, *Euzkadi*-ko erredakzioan, euskal atalaren ardura hartu zuen Lauaxetaren ondoren. Gerra garaian, Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan agintarien konfiantzazko gizona zen.

Emaztea, Laura Trojaola Zarandona, bermeotarra zen eta lau seme izan zituzten: Jon, Andoni, Sabin eta Josu. Gerra Zibilaren ondoren erbestean bizi izan zen eta emazteak tabernaren

bidez aurreratu zuen familia. Bordelen eta Baionan Euzko Alderdi Jeltzaleko alderdi-arazoetan eta erresistentzian egon zen. 1946 urte inguruan Deustun inprimategia antolatu zuen, Salostar izenekoa, legezko eta legez kanpoko aldizkariak, bereziki *Euzkadi* izenekoa, argitaratzeko. Atxilotua izan zen eta bi urtez preso egon. Ondoren, hestu-hestuan, poliziak begiratuta egon zen. Lanbidez, arrain-kontserben edo Eibarreko Gisasola lantegiko tresnerien salmentetarako ordezkari ibili zen.




Abeletxeren artikulua *Euzko*-n.

Aldi berean, 1952an bere semeak, Jonek, Txinparta antzerki-taldea sortu zuenez, buru-belarri antzerkia idazteari ekin zion. 17 antzerki-lan idatzi zituen. 1956an Julio Urkijo Mintegiak lehen saria eman zion *Eguberri aizeak* izeneko antzerkiagatik eta 1959an aipamen berezia lortu zuten bere antzerki-lan bik.

Horrez gainera, *Zeruko Argia* eta *Agur* aldizkarietan batez ere, artikulu umoretsuak argitaratzen zituen eta olerkiak ere *Oleriti* aldizkarian. Baina oraingoan, bere kazetari-sena eta arlo

honetan garatutako lana azpimarratu nahi dugu.

1965eko irailaren 24an Euskaltzaindiko urgazlea izendatu zuten, baina bera Bilboko Euskerazaleak taldeko kide izanda bertatik lantzen eta burutzen zituen euskera-moldeak edo aukerak, Euskaltzaindikoak baztertuz. Horretan ere Kirikiñoren urratsei jarraitu zien, izan ere, 1920ko hamarkadan *Euzkadi* egunkariko kazetariak ez zituen onartu Euskaltzaindia sortu berriaren gomendioak eta arauak, Sabino Aranarenak gordez.





Abeletzek artikulu eta ipuinak argitaratu zituen agerkari ezberdinetan, honako hauek *Euzkerea* eta *Ezko-Enda* aldizkarietan argitaratu ziren.

Esan bezala, Kirikiño hartu zuen maisutzat kazetagitintzan eta lerro berean iraun zuen: artikulua arinak, hitz laburrak esanahi zuzenekoak, esaera umoretsuak... Horixe zen bere estiloa eta gaurregungo kolumnismoan erabiltzen den joera nabari-nabaria dugu bere kazetaritza-izkribuetan. *Euzko* aldizkarian dugu, beharbada, bere kazetaritzarako senaren erakusgarri den artikulua-andana.


13

Antzezlanen eskuizkribuak.



Ziur asko, alde z aurretik *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren arduraduna izan zelako izendatu zuten *Eguna* egunkariko zuzendari. Bestalde, EAJko buruzagientzat ezaguna zen eta haien kidea gainera. Hala ere, *Eguna*-n gutxi idatzi zuen: argazkien oinak eta zenbait komentario labur baino ez. Eusko Jaurlaritzako eta EAJko buruekin harreman zuzenetan zegoen, Luki Artetxe aholkulari zuela. Gerra-garaian, bada, bestelako arazo orokorretan ere ibili zen murgildurik. Dena dela, egunero *Eguna*-ri azken begirada ematen joaten zen. Egunkaria erredaktatzeko ardura Augustin Zubikarairen esku zegoen, erredakzio-buru legez. Eusebio Erkiaga zen buru-belarri egun osoz jarduten zuen bestea *Eguna* argitaratzeko.

Ziarsolok Zaitegiri 1959 urtean idatzi zion gutuna *Euzko-Gogoa*-n argitaratzeko lanak eskainiz: ipuinak eta antzezlanak



EGUNA-KO KAZETARI TALDEA

Aipatu bezala, Augustin Zubikarai eta Eusebio Erkiagak erredakzio-gunearen gunea osatzen zuten. Horietaz gain, Jose Mari Arizmendiari eta Alejandro Mendizabal ere baziren oinarrizko eta behin behineko taldean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak egunero argitaratzen zuen Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa euskaraz eta erdaraz Telesforo Monzonen agindupean. Hori euskaraz argitaratzeko Gipuzkoako idazle-talde trinkoa bildu zuen Telesforok: Txomin Arruti *Mendilauta*, J. Insausti *Uzturre*, Andres Artzelus *Luzear*, Iñazio Eizmendi *Basarri* edo *Ertzaina*, Fausto Leunda eta Andoni Arozena. Idazle hauek euskaraz trebatuta zeuden eta *Eguna*-ren proiektuan buru-belarri parte hartu zuten, baina gehienbat idazle laguntzaile bezala.

Beste sail batean, kolaboratzaile libreak aipatu behar dira. Horietako batzuk guda-oinetako gudarien kronikak idazten zituzten: "Olabeagatarra" goitizenekoa eta Jose Andres Idigoras, besteak beste. Emakumezkoen artean: "Maite" izenez sinatzen zuen kazetari sutua Julia Gabilondo dugu, Markinako M. Elizabete Aginagak "Ete" sinatzen

zuen, eta Julene Azpetiak
“Arritokieta”.

Azkenik, herrietako kronikalarien
lana ere gogoan hartzekoa da,
egunkariari tokian tokiko
lekukotasunaren bizitza atal honek
ematen ziolako.



Augustin Zubikarai.

AUGUSTIN ZUBIKARAI (1914-): EGUNA-KO ERREDAKZIO BURU

Ondarrutarra, gazte-gazterik, 22 urtez
baino ez, egunkari bateko ur handietan
igerian sartuta ikusi zuen bere burua.
Kronikalari legez hasi zen Ondarruko
berriak agintzen. *Euzko* aldizkarian
idazten zuen eta handik *Euzkadi*
egunkarira eraman zuten. Gudari joateko
zela Lauaxetak Bilbon gelditzeko agindu
zion. *Euzkadi* egunkariko euskal atalean
gerraren gorabeherak idazten zituen.
Ondoren, euskarazko egunkaria
argitaratzeko erabakia hartu zenean,
Manu Ziarsolok Augustin Zubikarai
aukeratu zuen eguneroko erredakzio-buru
izateko. *Eguna*-ren eguneroko
argitalpenaren ardura nagusia bere gain
hartu behar izan zuen eta halabeharrez,
egunkaria berak zuzendu eta bete behar
izan zuen. Bere lanak honako izenordez
sinatu zituen: “Akilla”, “Arteta”, “Gurutx”,
“Kresala” eta “Kurtzulu”. Azken batez,
eguneroko zereginean bera bihurtu zen
erantzukizun handienaz egunero
egunkariaren argitalpenari eusteko.

15

EUSEBIO ERKIAGA (1912-1993)

Lekeitiar hau poemak idazten hasi zen Lauaxetaren eraginez, baina aldi berean, kazetari-lanak ere egin zituen *Euzko* aldizkarian. *Euzkadi* egunkarian, besteak beste, argitaratzen iraun zuen eta gerra-garaian “Guda-otsak” atalean Augustin Zubikararekin batera aritu zen. Aldi berean, jauzia eman behar izan zuen, Manu Ziarsoloren aginduz egunkari berrira. Bere guda partikularra, egunero euskaraz egunkaria betetzea izaten zen, hainbatetan itzulpenen bidez, azkenean argitaratu ahal izateko. Eskolapioetan zegoen gudari legez baina bere lana idaztea zen.

Euskal egunkariaren sorrera epikoaren alboan, Eusebio Erkiagak idatzitako berbak ere gogoratu beharra dago, *Eguna*-ren fenomeno bere hartan kokatzeko: “Eguna ez zan egunkari normala izan. Besteren ekipamenduz baliatu zan: idaztegela, paper, tipografi, erbesteetako albisten iturri... Kazetari-kumak, gudari auxiliarrak, osasunez erdi makal edo ikusmenean akatsak zituenak, 21-24 urteko gazteak inprovisazino moldakatxera behartuak. Goizetik gauera periodista bihurtuak.” Erabili zituen goitizenak ondokoak ziren: “Edo”, “Endaitz” eta “Eusebi”.



Eusebio Erkiaga.

JOSE MARI ARIZMENDIARRIETA (1915-1976)

Apaizgai zegoela gudari sartu eta bere egitekoa *Eguna*-rentzat artikuluak idaztea izan zen. Partehartze zuzena izan zuen egunkariaren erredakzioan. Erlijio-gaiez idatzi zuen sarritan. “Arretxinaga” izenordea erabili zuen. Bere lanik eta eraginik handiena 1950eko hamarkadan erakutsi zuen Arrasate aldeko kooperatibismo industrialaren teoriko eta bultzagile bihurtu zelako.



Jose Mari
Arizmendiarieta.

ALEJANDRO MENDIZABAL

Mutrikuar honek “Txaranbel” izenordea erabili zuen. Bere artikuluetan sarritan aurkitzen dugu iparraldeko Euskal Herriari buruzko albisteak —adibidez ikusi “‘Eguna’ Laburdin”, 1937.1.14—. *Eskualduna* astekaria irakurtzen zuela dirudi. Gerra-garaian bi euskal agerkariak mutur-mutur aurka zeuden: *Eskualduna* astekariaren zuzendarientzat Molaren aldeko euskaldunak ziren jator eta zintzoenak, integrismo katoliko totalitarioa euskalduntasunaren irudi garbia zelarik. Aldiz, *Eguna*-koek, askatasun demokratikoak eta Euskal Herriaren burujabetza zuten abiapuntu nagusitzat euskal nortasuna definitzerakoan. Horrela, erabat aurkako bihurturik zeuden, katolikotasunaren defentsa irmoa egin arren.

Lau kazetari hauek osotu zuten unean uneko egunkariaren produkzioarako gunea. Kirikiñoren euskara-ereduari, bizkaierazkoari hain zuzen ere, jarraitu zioten, baina mugakoak zirenez gero, gipuzkerazko esaldiak eta abar sartzen saiatu ziren. Euskara batuaren premia begibistako ageri zen.

BESTE KAZETARI TALDEA

Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa euskaratzen zutenak Bilbon zeuden lanean. Baina, Gipuzkoatik etorritakoak zirenez, gipuzkerazko eredua erabiltzen zuten. Txomin Arruti, jadanik, euskarazko egunkariaren alde aspaldian agertu zen. *Loretxo* eleberri-edestia idatzi zuen zatika. Andres Artzelus Donostiako *El Día* egunkariko euskarazko artikuluen egile eta arduraduna zen. I. Eizmendi, *Basarri* idazle trebatua zen artikulugintzan eta bere sailak “Nere bordatxotik” izena zuen. Tomas Agirre, *Barrensorto* ere idazle egina zen. Andoni Arozena, *A-BI*-k “Xelataka” saila artikulua biziak idazten maiz bete zuen. Talde honetan Jesus Insausti, *Uzturre* ere bazegoen, gazteagoa izan arren. Laburbilduz, idazle iaioak eta kazetagintzan pertsona helduak eta gazteak elkar aurkitu zuten.

Pertsona hauen parte hartzeak *Eguna* egunkariaren izanari, iritzia eta edukia erantsi zizkion, egunkariak itxura mamitsuagoa hartuz. Horrez gainera, beste euskara-eredu bat sartuz mesede handia hartu zuen egunkariak. Azken zenbakietan euren hutsunea nabarmen ageri da.



Andres Artzelus, *Luzear*.



I. Eizmendi, *Basarri*.



Tomas Agirre, *Barrensorto*.



Jesus Insausti, *Uzturre*.

BESTELAKO LAGUNTZAILEAK

Eguna-tik sarritan zabaldu zen mezua kolaboratzaile euskaldunei euskaraz idazteko deia eginez. Alde batetik “Euzkadi errijetako izparrak” sailean herriko kronikak argitaratzen ziren eta herriko bizimoduaren berri jasotzen zen.

Bestetik guda-oinetatik gudari batzuk gogoetak bidaltzen zituzten; hor ditugu adibidez, Jose Andres Idigoras,

Olabeagatarra edo Sebastian Alustiza, *Ilintxa*.

Emakumezkoen partaidetza ere nabaria izan zen: lehen zenbakitik “Maite” ezizenez sinatzen zuena Mungiako Julia Gabilondo zen. Julene Azpeitiak ere “Euzkotar umien alde” artikulua argitaratu zuen “Arritokieta” izenez sinatuta. Artikulu horretan, haurrak eta gurasoak gogoan hartu zituen.

19



Julia Gabilondo, *Maite*.



Julene Azpeitia, *Arritokieta*.

LABURBILDUZ

Eguna, belaunaldi berriaren egunkari-proiektu bihurtu zen, abertzale euskaldunena, hain zuzen ere. Lauaxeta eta Manu Ziarsoloren eragina ezinbestekotzat jo dezakegu bere sorreran, abertzaletasun euskaldunaren defendatzaile irmoak izan zirelako. Hala ere, ez dirudi asko idatzi zutenik. Guda-garaia izan arren, garaian garaiko diskurtso periodistikoa sortzea lortu zuen. Horrez gainera, literatur testuek txokoa irabazi zuten eta argazki edo marrazkien bidez, egunkariak erakartasuna eta irakurtzeko erraztasunak sortu zituen.



1990 urtean Eusko Jaurlaritzak *Eguna* egunkariko idazleei omenaldia egin zien eta egunkariaren berrargitalpen faksimilea paratu Kultura eta Turismo Sailaren bitartez.